

Matrikula. Egin beharrekoak

PAUSOAK

Buletin honetako ikastaroetan matrikulatzeko, eskatzaileak izena emateko orria bete beharko du beheko taulan adierazitako egunetan. Orri hori Zelaietako harreran izango da eskuragarri.

PAUSOAK	DATA	ORDUA	LEKUA
1 Aurrematrikulazio orriak hartu eta entregatu	Urtarrilaren 4tik 12ra	9:00etatik - 21:00etara	Zelaieta Harrera
2 Plazen zozketa (beharrezkoa bada)	Urtarrilaren 13a	12:00etan	Zelaieta Auditoria
3 Onartutakoen zerrendak argitaratu	Urtarrilaren 15a	15:00etan	Zelaieta Sarrera
4 Bankuko diru-sartze ziurtagiriak ekartzea.	Urtarrilaren 20ra arte	Urtarrilaren 20ko 14:00ak arte	Zelaieta Harrera

- Onartuen zerrendetan Amorebieta-Etxanoko biztanleek lehentasuna izango dute. Horretaz gain, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

Hasiberrientzako ikastaroetan.

- Eskatutako arloan lehenengo aldiz izena ematen dutenak lehentasuna izango dute.
- Jarraipen ikastaroetan.
- Ezinbestekoa izango da eskatutako arloko aurreko ikastaroetan parte hartu izana, edota jakite-maila ziurtatzea
- Ikastaro bakoitzeko talde baten baino ezingo da izena eman. Baten baino gehiagotan eman ez gero, antolatzaileek erabakiko dute zein taldetan sartu.

- Irizpide hauek ezarri ondoren, eskari-kopurua eskainitako plazak baino handiagoa bada, zozketa bidez izendatuko dira horiek.
- Onartuen zerrenda bakoitzean 3 plazako itxaron-zerrenda egongo da.
- Diru-sartze ziurtagiria epe barruan aurkezten ez badu, eskatzaileak automatikoki galduko du lekua, eta itxaron-zerrendako lehenak beteko du.
- Behin ikastaroa hasita, matrikula kontzeptuan ordaindutako dirua ez da bueltatuko.
- Plaza pertsonala eta besterenezina da, ezin zaio inori eman.

OHARRA ASTE SANTU OSTEAN HASTEN DIREN IKASTAROETAN

PAUSOAK	DATA	ORDUA	LEKUA
Bankuko diru-sartze ziurtagiriak ekartzea	Matxoaren 22tik-26ra arte	Martxoaren 26ko 14:00ak arte	Zelaieta harrera